

18-05-2019

1.go EGUNA:

IONDEGORTA, AGIÑALDE (Santutxuko Mendi Taldearen aterpea), BAIAS ibaiaren jaiotza eta GORBEIA (guez) 1482m

Iondegortako aparkalekutik (730m), porlanezko bide bat hartuz, Agiñalde izeneko zelaira helduko gara (900m 30'). Haginak daude inguru honetan, horietariko batzuk oso handiak dira eta Euskadiko aparteko zuhaitzen zerrendan daude. Bertatik hegoalderantz joko dugu Aldamiñapen dagoen aterpera heltzeko. Bertan utziko ditugu behar ez ditugun gauzak (lo zakua eta abar).

Eguerdian Baias errekaaren iturbururaino joango gara. Santutxuko Mendi Taldeko aterpetik abiatuko gara inguruan dagoen beste aterpe batera heldu arte. Bertatik 30 minutu emango ditugu igoera xuabe batean Igirañaoko landetara heldu arte. Gora heltzerakoan Zastegiko zutharrira abiatuko gara eta handik 45 minutura dagoen Urratxa haitzera eta gero Baias iturburura. Bueltarako aldapan gora joango gara ordu bete eta 45 minutu Igiriñaora heldu arte. Bertatik lehen etorri garen leku beretik jaitsiko gara 30 minutu guztira gutxi gorabehera.

Goizeko ibilbidea: 2 ordu eta erdi inguru.

Gauean Gorbeia tontorrera igoko gara. Santutxuko aterpetik abiatuta ordu bete inguru emango dugu gailurrera heldu arte. Zortea badaukagu ilargipean igoko gara. Egun horretan ia-ia ilargibetea egongo da. Tontorretik behera 40 minutu inguru daude. Aterpera heltzerakoan denok lotara.

2. EGUNA:

AGIÑALDE (Santutxu Mendi Taldearen aterpea) ARRALDE eta ATXURIKO bidea. Igande goizean Agiñalde izeneko eremutik ibiliko gara. Ez dago desnibel askorik. Atxuriko bidea ezagutuko dugu (formazio geologiko ederra) eta Arralde izeneko tontorrera igo. Joan-etorria bi ordu inguru izango dira. Eguna patxadaz hartuko dugu aterpea joan aurretik txukundu behar dugulako.

EGURALDI IRAGARPENA IKUSI

IBILBIDEAREN TRAKA DESKARGATU

Compártelo:

[Click to share on Twitter \(Opens in new window\)](#)

[Click to share on Facebook \(Opens in new window\)](#)

[Click to share on Google+ \(Opens in new window\)](#)

DATU TEKNIKOAK

Jarduera mota

Egun batzuetarako zeharkaldia oinez.

Kokapena

Metatutako desnibela

Luzera

Jardueraren iraupenaren aurreikuspena

Elkartzeko tokia eta ordua

Maiatzak 18 larunbata. Gailurrako egoitza (Trauko 27) goizeko 9:00etan.

Ibilbidearen hasiera eta bukaera

Zeanuri. Lanbreabe auzoa. Iondegortako parkinga.

Irteerarako izena emateko azken eguna

16/05/2019

Jakin beharreko kontu teknikoak

Partehartzaileek jakin behar izango dute mendi-mapa bat irakurtzen eta fitxan deskribatutako ibilbidea jarraitzen.

Prestakuntza fisiko beharrezkoa

Prestakuntza fisiko on bat beharrezkoa da, ibilbidearen zailtasuna eta iraupenera aurre egin ahal izateko

Material tekniko beharrezkoa

Nahitaezkoa: - Mendiko botak. - Frontala. - Eguzkitarako krema. - Eguzkitarako betaurrekoak. - Kapela - Zira/Txubaskeroa. - Lo zakua. - Makilak. - Kantinplora 1, 5 litro gutxienez. - Polainak
Aholkugarriak: - Zapatilak (aterpe barruan egoteko) - Belarrietarako tapoiak (zurrungalarien kontrako neurria) - Norberak erabili beharreko botikak. - Burko zorroa. Garrantzitsua: - Bi egunetarako janaria eraman behar da.

Bestelako oharra

- Aterpean gaua pasatzeko 7 euro ordaindu beharko dira. - Ohe kopurua mugatua da beraz ahalik eta azkarren izena eman ohea ziurtatzeko. - Aterpean ez dago elektrizitaterik. Ez dago ur berorik.

- Denok elkarrekin afari bat prestatzeko asmoa dago.

1. Txakurrak eraman daitezke. Eguraldi txarra ez balego aterpe kanpoan egon beharko dira gunean zehar. Gaeuan aterpe barruan (beheko solairuan) lo egin dezakete.
2. Norbaitek musika-tresnaren bat jotzen jakingo balu eraman dezala.
3. Irteerara joango garenon arteko koordinazioa errazteko whatsapp talde bat sortuko da.
4. Apuntatzen den jendearen arabera zenbat kotxe partikular eramango ditugun adostuko dugu. Ez aparkatu baimendutako gunetatik gorago. Parke naturalean gaudenez sekulako isunak jarri ditzakete.

IZENA EMATEAN HONAKO INFORMAZIOA GEHITU BEHARKO DUZU KOMENTARIO ATALEAN:

- Zein egunetan hartuko duzu parte?: (asteburu osoan / larunbatean / igandean)
- Aterpean lo egin nahi duzu? (Bai / Ez)
- Larunbateko afarian parte hartuko duzu? (Bai / Ez)
- Afarirako behar berezirik duzu? (Begetarianoa / alergiaaduna / zeliakoa /...)

Argibide gehigatarako

Telefonoa: 656740548 Txaber

